



**ZERGA INFORMAZIOA EMATEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, OGASUN ETA
FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA
TXINGUDIKO ZERBITZU
MANKOMUNITATEAREN ARTEAN**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE
CESIÓN DE INFORMACIÓN TRIBUTARIA, ENTRE
EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS
Y LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE
TXINGUDI**

2016 MAY: 17

Donostia, 2016ko maiatzaren

San Sebastián, a de mayo de 2016.

HAUEK ELKARTU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuko foru diputatua, foru diputatuen izendapenari buruzko ekainaren 24eko, 4/2015 foru dekretuaren bidez izendatua.

De una parte, Don Jabier Larrañaga Garmendia, Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud del Decreto Foral 4/2015, de 24 de junio, de nombramiento de los diputados/as forales.

Bestetik, Jose Antonio Santano Clavero jauna, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateko Lehendakaria, Asanbladak 2015eko irailaren 21ean hartutako akordioaren arabera.

De la otra, Don José Antonio Santano Clavero, Presidente de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, en virtud de acuerdo de la Asamblea adoptado el 21 de septiembre de 2015.

Hitzarmen hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortzen die elkarri, eta horri dagokionez zera

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente convenio, y a tal fin

ADIERAZTEN DUTE

MANIFIESTAN

I.- Ogasun eta Finantza Departamentuak bere eskumenak gauzatzean zergapekoengandik lortu ohi duen zerga informazioa, haiek legezko betebeharrak konplitzean emandakoa, Administrazio Publikoek eskatu ohi diote beren zeregin eta eskumenak garatzeko.

I.- El Departamento de Hacienda y Finanzas, en ejercicio de las competencias que tiene atribuidas, obtiene de las personas obligadas tributarias información de carácter tributario, facilitada por aquéllas en cumplimiento de deberes legales, y demandada por las Administraciones Públicas para el desarrollo de las funciones y competencias que tienen encomendadas.

II.- Zerga datuen erabilpena eta lagapena muga jakin batzuei lotuta daude, hain zuzen, datu pertsonalak babesteko legeriak, Zergen Foru Arau Orokorrak eta zerga informazioaren lagapena arautzeko emandako gainerakoak jarritako mugei.

II.- El uso y cesión de datos tributarios están sujetos a las limitaciones previstas en la legislación protectora de los datos de carácter personal, en la Norma Foral General Tributaria, y demás disposiciones que, en desarrollo de dicha norma, regulen el suministro de información tributaria.

III.- Zerga araudiak zergapekoei aitortzen die eskubidea dutela, betiere legeak ezarritako baldintzetan, zerga administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratutako datu, txosten eta aurrekariak isilpekoak izan daitezten, beste inori utzi edo komunikatzea debekatuz, legean aurreikusitako kasuetan salbu, zergapekoaren baimenarekin edo baimenik gabe.

Hortaz, zerga informazioa isilpean gordetzea zergapekoen eskubidea da, eta aitortzen zaie haien intimitate zaintze aldera. Ogasun eta Finantza Departamentuak zaindu behar du eskubide hori bere esku dituen lege baliabide eta baliabide material guztiak erabilita.

IV.- Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko helburuen artean honako hauek daude: erakundeen arteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta Administrazioaren modernizazioa, razionalizazioa eta hobekuntza bultzatzea, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra lortzeko eta herritarrari zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, besteak beste, administrazio lanak sinplifikatuz edo tramite batzuk errazago bihurtuz. Betiere pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezko bermeak finkatuko direlarik.

V.- Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak zerga datu jakin batzuen lagapena eskatu du, hain justu, bere zereginak bete eta bere eskumenak gauzatu ahal izateko. Hori horrela, kontuan izanda elkarri laguntzea Administrazio Publikoen arteko harremanen printzipio gidaria izan behar dela, eta kontuan izanda, era berean, horien jarduna eraginkortasunean eta herritarrekiko zerbitzuan oinarritu behar dela, egokitza jo dute bi aldeek informazio lagapen hori arautzea. Ildo horretatik, zerga informazioa, ahal dela, bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliz emango da, eta lagapen hori egingo da administrazioak dituen bere datu pertsonalei dagokienez zergapekoari aitortzen zaizkion eskubide eta bermeak babestuz.

VI.- Horrenbestez, bi aldeek ados jarri dira lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko, jarraian aipatu klausulekin:

III.- En este sentido, la normativa tributaria reconoce a las personas obligadas tributarias el derecho, en los términos legalmente previstos, al carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos previstos en las leyes, con o sin la autorización del propio contribuyente afectado.

El carácter reservado de la información tributaria es un derecho de las personas obligadas tributarias establecido para salvaguardar su intimidad, y corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas velar por ese derecho, con todos los recursos jurídicos y materiales a su disposición.

IV.- Por otra parte, entre los objetivos prioritarios de la Diputación Foral de Gipuzkoa figuran la intensificación de las relaciones interinstitucionales de cooperación y el impulso de la modernización, racionalización y mejora de la Administración, buscando, por un lado, la gestión eficaz de los recursos públicos y, por otro, la prestación de un mejor servicio al ciudadano, simplificando los trabajos administrativos o facilitando la realización de determinados trámites, todo ello sin menoscabo de implantar las garantías que procedan para salvaguardar el derecho a la intimidad de las personas y proteger sus datos personales.

V.- La Mancomunidad de Servicios de Txingudi requiere la cesión de determinados datos tributarios para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tiene encomendadas, por lo que en el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas, y en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a los ciudadanos que han de regir su actuación, ambas partes consideran necesario regular las condiciones de dicho suministro, que se producirá utilizando preferentemente medios informáticos o telemáticos y con salvaguarda de las garantías y los derechos que les asisten a los obligados tributarios en relación a sus datos personales en poder de la Administración tributaria.

VI.- Por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración que se regirá por las siguientes



KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Ogasun eta Finantza Departamentuaren (informazio-emailea) eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen (informazio-hartzailea) arteko lankidetzaren arautzea, zerga administrazio jardunean informazio-emaileak eskuratutako zerga informazioan sardadin informazio-hartzailea, bereak dituen eginkizunetarako behar duen heinean.

Horrenbestez, zerga informazioa eskuratu edo ematerakoan indarrean den araudia, hitzarmen honen azalpenean aipatutakoa, erabat errespetatu beharko da eta informazioaren subjektu den pertsonaren eskubideak zaindu beharko dira.

BIGARRENA.- Zerga informazioa ematearen helburua

Informazio-hartzaileak unean-unean dituen eginkizunei lotutako beharretan oinarrituko da beti zerga informazioa ematea. Gainera, aplikatu beharreko araudiak hala galdatzen duenean, eman beharreko datuen zergapeko titularren berariazko baimena izan beharko du aldez aurretik.

Zerga informazioa zertarako nahi den dagokion eskaeran zehaztu behar da, eta era berean, lagapena baimentzeko organo eskudunak hartzen duen erabakian ere jaso behar da.

HIRUGARRENA.- Informazio lagapenaren edukia, modua eta aldizkakotasuna

1.- Informazio-hartzaileari egin beharreko informazio lagapen mota oro babesten du hitzarmen honek, hitzarmenean ezarritako baldintza, klausula eta printzipio guztiak betetzen dituen neurrian.

2.- Espediente zehatz batek sortutako beharrei erantzuteko egin beharreko informazio lagapena denean, eta hala delako, luzerako balioko duen baimen orokor batekin jarraipena ematea merezi ez

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto

El presente convenio tiene por objeto regular la mutua colaboración entre el Departamento de Hacienda y Finanzas (en adelante, cedente) y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi (en adelante, cesionario), a fin de facilitar el acceso a la información tributaria obtenida por el cedente en el ejercicio de sus funciones en cuanto Administración tributaria, y requerida por el cesionario para el desempeño de las que tiene encomendadas.

En todo caso, dicho acceso o suministro se producirá siempre con estricto respeto al marco normativo vigente y citado en la parte expositiva del presente convenio, preservando siempre los derechos de las personas a que se refiera la información.

SEGUNDA.- Finalidad del suministro de la información tributaria

Todo suministro o cesión de información tributaria se justificará en base a las necesidades derivadas del desempeño de las funciones que tiene atribuidas en cada momento el cesionario, y cuando la normativa aplicable así lo requiera, dicho suministro contará con la autorización previa y expresa del afectado a quien se refieran los datos a ceder.

Las funciones concretas para las que se solicita la cesión se especificarán en la petición correspondiente, y se recogerán, asimismo, en la resolución que el órgano competente adopte autorizando dicha cesión.

TERCERA.- Contenido, forma y periodicidad del suministro de información

1.- Este convenio ampara todo tipo de suministro de información tributaria que proceda a realizar a la administración cesionaria, siempre que dicho suministro cumpla con todos los requisitos y observe todas las cláusulas y principios en él contemplados.

2.- Cuando el suministro pueda considerarse puntual, esto es, destinado a responder a las necesidades derivadas de un expediente concreto, por lo que no interesa dotarlo de continuidad obteniendo una

duena, informazio-emaileak emango dion ereduaren arabera egin beharko du hartzaileak bere eskaera, eta gaiaren arabera dagokion zerbitzuak eskatutako informazioa bidaliko dio, bidali ere, hartzailearekin bat, egoki iritzitako bidetik.

Eskaera egiten duenean informazio hori lortzeko sistema estandarizaturik bada, hori erabiltzera behartuko zaio hartzaileari, 3. puntuan arautzen den lagapen mota moduan bideratzearen bete beharreko baldintzak betez, hala balegokio.

Eskaera puntual eta askotariko horiek ahalik eta bizkorren bideratzearen, adostu ahal izango da dauden bide telematikoak erabiliz, beti ere alde zuzenetik beren identitatea frogatuta, informazioa eskatzeaz arduratuko diren pertsonak izenda ditzala hartzaileak. Aukera hau eginez gero, dagokion eranskinean jasoko da, hurrengo puntuan ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honen babesean denboran mugatuak diren informazio lagapenak ere adostu ahal izango dira. Lagapen horiek honela formalizatuko dira: informazio-emaileak emango dion ereduaren arabera eskatuko du hartzaileak eta utzi beharreko datuen arabera eskuduna den organoak aldi baterako baimena emanaz erabakia hartuko du.

3.- Bere xedeagatik, edukiagatik eta eragindako pertsonengatik (beste ezaugarri batzuen artean) tipologia jakin bati lotu dakiokkeen lagapena denean, eta jarraipena ematea egoki irizten denean, aldizka egiten delako edota lagapen horrek segidan erabil daitezkeen programa edo aplikazioetan sartzeko baimena galdatzen duelako, lagapen motatzat joko da hitzarmen honen ondorioetarako eta, horrenbestez, hitzarmen honen eranskin gisa jasoko da, bere edukia zati izango da eta bertan araututakoaren pean geldituko da.

Eranskin bakoitzak dokumentazio hau izango du:

- Informazio-hartzailearen organo eskuduna eragindako eskaera arrazoitua. Eskaera hori, ahal den neurrian, 4. puntuan jasotako edukia iragartuko zaio.
- Eskaera horren aurrean Ogasun eta Finantza

autorización genérica extensible en el tiempo, la solicitud se formulará según el modelo facilitado por el cedente, y el servicio competente por razón de la materia remitirá la información solicitada por el cauce que, de acuerdo con el cesionario, estime oportuno.

Si al tiempo de formularse la solicitud existiera algún sistema estandarizado de obtención de dicha información, se instará al cesionario a que haga uso del mismo, cumplimentando, en su caso, las formalidades que se requieran para encauzarlo como tipo de suministro al que se refiere el punto 3 siguiente.

A fin de agilizar la tramitación de estas solicitudes puntuales y variadas, podrá acordarse que el cesionario designe a las personas encargadas de formularlas a través de los medios telemáticos disponibles, previa acreditación de su identidad. La utilización de esta opción será objeto de Anexo, de acuerdo con lo señalado en el punto siguiente.

También podrán acordarse al amparo de este Convenio suministros de información limitados en el tiempo, que se formalizarán con una solicitud del cesionario según el modelo facilitado por el cedente y una resolución adoptada por el órgano competente en función de los datos a ceder, concediendo la correspondiente autorización temporal.

3.- Cuando un suministro responda a una tipología determinada en cuanto a finalidad, contenido y personas afectadas, entre otras características, y se considere de interés dotarlo de continuidad, bien por producirse periódicamente, bien por requerir alguna autorización para el acceso a programas o aplicaciones de los que pueda hacerse uso de forma sucesiva, será definido como tipo de suministro a los efectos del presente convenio, y se incorporará al mismo como anexo, pasando a formar parte de su contenido y quedando sujeto a su regulación.

Cada anexo incorporará la documentación siguiente:

- Solicitud justificada del órgano competente del cesionario, que se ajustará, en la medida de lo posible, al contenido descrito en el punto 4 siguiente.
- Resolución que a tal efecto adopte el órgano



Departamentuaren barruan eman beharreko datuen arabera eskuduna den organoak hartutako ebazpena.

Dena den, hitzarmena sinatzeko unean horri erantsita datozen lagapenak hitzarmenaren zati izango dira hori sinatu izanagatik, goian aipatu eskaera eta ebazpenaren beharrik gabe.

4.- Informazioa emateak jarraitu beharreko printzipioen barruan (laugarren klausulan jasotzen dira), lagapen mota bakoitzari dagokionez zera zehaztu eta arautu behar da: lagapenaren helburua, lagapena eta informazio-hartzailearen eskumena oinarritzeko araudia, interesdunaren baimena eskatzen den ala ez, zergapekoei buruz emango diren datuak, lagapen sistema eta horretarako erabiliko diren baliabide tekniko eta materialak, aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsona kopurua, emandako datuak hirugarrenei lagatzea aurreikusten den ala ez, informazioan sartzeko baimendutako pertsonak, erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa, zuzenbide gaietarako, informatika gaietarako nahiz beste gai material batzuetarako solaskideak, eta oro har, egokitzeak jotako beste edozein xehetasun.

5.- Dagoeneko hitzarmenaren zati den lagapen bati dagokionez zerbait aldatzea proposatzen denean, lagapen hori arautzen duen eranskina aldatu edo ordeztu ahal izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuko organo eskudunak hartu ebazpen berria medio, hartu ere informazio-hartzaileak alde aurretik hala eskatu diolako (eskaera arrazoitu egin behar du).

6.- Ahal den neurrian prozesu informatiko edo telematikotik oinarritutako lagapen sistemak erabiliko dira, hala nola, zerbitzari seguruan jarritako postontzia, Internet bidez zerga datuei buruzko frogagiriak lortzeko zerbitzua, euskarri ezberdinetan bidalitako fitxategiak, web zerbitzuak eta, unean-unean egokiak irizten diren gainerakoak. Dena den, erabiltzen diren lagapen sistemak datu pertsonalak babesteko araudiak galdatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun bermeak bete behar dituzte.

7.- Aukeratzen den lagapen sistema hauen baitan

competente, en función de los datos a ceder, del Departamento de Hacienda y Finanzas.

No obstante, el suministro o suministros que acompañen como anexos al convenio en el momento de ser suscrito, formarán parte del mismo con motivo de la firma, sin necesidad de que dispongan de la solicitud ni de la resolución a que se hace referencia en los párrafos anteriores.

4.- En el marco de los principios enumerados en la cláusula cuarta, respecto de cada tipo de suministro se determinarán y regularán su finalidad, la normativa que ampara la cesión y la competencia del cesionario, si se solicita o no el consentimiento del interesado, los datos a ceder en relación a los obligados tributarios afectados, sistema de suministro y los medios técnicos y materiales empleados para ello, periodicidad y número de personas afectadas, previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados, personas autorizadas para acceder a la información suministrada, órgano responsable de la gestión de usuarios y de la seguridad y del control de la información cedida, interlocutores para cuestiones jurídicas, informáticas u otras cuestiones materiales, y en general, cualquier otra circunstancia que se estime oportuno.

5.- Cuando se plantee cualquier variación en relación con un suministro ya incorporado al convenio, el anexo que lo regula podrá ser modificado o sustituido, previa solicitud justificada del cesionario y mediante nueva resolución a adoptar por el órgano competente del Departamento de Hacienda y Finanzas.

6.- Se utilizarán preferentemente sistemas de suministro basados en procesos informáticos o telemáticos, tales como el buzón ubicado en servidor seguro, el servicio de obtención de documentos acreditativos de datos tributarios a través de Internet, la remisión de ficheros en soportes varios, servicios web, u otros que, en su momento, se consideren pertinentes. En todo caso, dichos sistemas deberán cumplir todas las garantías de seguridad, integridad y confidencialidad exigibles por la normativa protectora de los datos de carácter personal.

7.- La forma o el sistema de suministro por el que se

egongo da: eskatzen den informazioaren bolumenaren eta edukiaren baitan eta eskaeren aldizkakotasunaren baitan.

LAUGARRENA.- Aplikatu beharreko printzipioak

Ondoko printzipio eta arauak izan behar ditu kontuan hitzarmen honen babespean egindako informazio lagapen orok:

- 1.- Emandako datuak hartzailearen funtzio eta eskumenetara egokitzea.
- 2.- Informazioa garrantzitsua eta baliagarria gertatzea bete nahi diren helburuak lortzeko.
- 3.- Emandako datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
- 4.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- 5.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.
- 6.- Zorrotz lotzea datuen eskaera justifikatu eta arrazoitzen duten helburuei, zerga informazioa interesdunaren edo afektatuaren kalterako beste inoiz erabili gabe.
- 7.- Datuak transferiezinak izatea, hau da, hartzaileak beste inori ezin uztea, eragindako pertsonak edo legeak hala baimendu ezean.
- 8.- Informazio-hartzaileari datuak geroago tratatzeko debekua ezartzea, eragindako pertsonak edo legeak hala baimendu ezean.

Edonola ere, aplikatu beharreko araudiak hala galdatzen duenean, bere zerga datuetan sartzeko zergapekoaren baimena lortu beharko du aurretik informazio-hartzaileak. Lortutako baimen horren konstantzia dagokion espedienteen jaso beharko da.

BOSGARRENA.- Zerga informazioan sartzearen kontrola eta segurtasuna

- 1.- Zerga informazioan sartzearen kontrola eta segurtasuna ondoko arau hauen pean dago: datu pertsonalak babesteko lege organikoa, datu pertsonalak dituzten fitxategien segurtasun

opte estará en función del volumen y contenido de la información que se solicita, así como de la periodicidad de las demandas.

CUARTA.- Principios aplicables

Todo suministro de información que se realice al amparo del presente convenio se registrará por los siguientes principios y reglas:

- 1.- Adecuación de los datos suministrados a las funciones y competencias del cesionario.
- 2.- Relevancia y utilidad de la información para los fines que justifican el suministro.
- 3.- Proporcionalidad entre los datos suministrados y los fines para los que se solicitan.
- 4.- Seguridad de los medios de transmisión y acceso empleados.
- 5.- Eficiencia y minimización de costes.
- 6.- Estricta afectación a los fines que justifican y para los que se solicitan los datos, sin que la información tributaria pueda utilizarse en perjuicio del interesado o afectado en ningún otro caso.
- 7.- Intransferibilidad de los datos, sin que el cesionario pueda volver a cederlos a terceros, salvo consentimiento del afectado o autorización legal.
- 8.- Prohibición de tratamiento ulterior de datos por el cesionario, salvo consentimiento del afectado o autorización legal.

En todo caso, el cesionario recabará el consentimiento previo del afectado para acceder a sus datos tributarios, si dicho consentimiento es exigible por la normativa aplicable. Se dejará constancia del consentimiento recabado en el expediente correspondiente.

QUINTA.- Control y seguridad de los accesos a la información tributaria

- 1.- El control y seguridad de los accesos a la información tributaria se registrará por lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, el Reglamento de Medidas de Seguridad, y



neurriei buruzko garapeneko araudia, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako segurtasun agiriak.

2.- Informazio jakin bat emateko eskatzen duenean, informazio-hartzaileak informazio-emaileari adieraziko dio zein izango den erabiltzaileen kudeaketaz eta sarreren kontrolaz nahiz segurtasunaz arduratuko den organoa. Organo horri funtzio hauek dagozkio, besteak beste:

- a) Informazio lagapen horri lotutako eskaerak bideratzea.
- b) Lagatako informazioa erabiliko duten pertsonen altak eta bajak eskatzea.
- c) Lagatako informazioa isilpean gordetzen dela, eta isilpean edukitzeko beharrezko segurtasun neurriak hartzen direla ziurtatzea.
- d) Baimendutako erabiltzaileek beren baimena eta horri esker lortzen duten informazioa egoki erabiltzen dutela ziurtatzea, eta interesdunaren baimena ezinbestekoa denean, bere zerga informazioan sartu aurretik aipatu baimena eskuratu dela ziurtatzea.
- e) Oro har, informazio-hartzailea den Administrazio Publikoaren eremuan hitzarmen hau aplikatzen dela egiaztatu eta zaintzea, eta bere klausula guztiak nahiz datu pertsonalak babesteko gainerako arauak betetzen direla ere bai, behar izanez gero aplikatu eta bete dadin premiatuz. Horrenbestez, gorabehera edo irregulartasunen baten berri duenean informazio-emaileari jakinaraziko dio.

3.- Informazio-emaileak alor hauetan proposatzen dizkion segurtasun neurriak ezarriko ditu informazio-hartzaileak:

- a) Erabiltzaileen kudeaketa.
- b) Erabiltzaileen kudeaketa dokumentatzeko arauak.
- c) Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga informazioan erabiltzaileen sarreren aldizkako kontrola, arrazoiak azalduz.
- d) Informazio-emaileak egoki irizitako beste edozein.

4.- Utzitako informazioa behar bezala lortu eta

en los documentos de seguridad aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.- En el momento de solicitar un suministro concreto, el cesionario comunicará al cedente el órgano responsable de la gestión de usuarios y del control y seguridad de accesos respecto al mismo. A dicho órgano le corresponderá, entre otras, las siguientes funciones:

- a) Tramitar las solicitudes relacionadas con dicho suministro.
- b) Solicitar las altas y bajas de los usuarios de la información cedida.
- c) Asegurarse de que se preserva el carácter reservado de los datos suministrados, y que se adoptan las medidas de seguridad necesarias al respecto.
- d) Asegurarse de que los usuarios autorizados hacen un uso adecuado de su autorización y de la información accedida, y de que existe el previo consentimiento del interesado cuando el mismo sea imprescindible para acceder a sus datos.
- e) En general, verificar y velar por la aplicación del presente convenio en el ámbito de la Administración Pública cesionaria, y el cumplimiento de todas sus cláusulas, así como de las demás disposiciones aplicables en materia de protección de datos de carácter personal, instando, en su caso, a dicha aplicación o cumplimiento. En este sentido, dará cuenta al cedente de todas las incidencias e irregularidades de que tenga conocimiento.

3.- El cesionario implantará las medidas de seguridad que se le propongan por parte del cedente en relación con las siguientes materias:

- a) Gestión de usuarios.
- b) Normas para documentar la gestión de los usuarios.
- c) Control periódico de los accesos de los usuarios a la información tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas, con motivación de los mismos.
- d) Cualesquiera otras que el cedente considere oportuno proponer.

4.- El cedente podrá instar al cesionario a la

erabili duela eta aplikaziozko araudiaren baldintzak edota hitzarmenean ezarritakoak bete dituela egiaztatze aldera, informazio emaileak premiatu ahal izango dio hartzaileari dagozkion egiaztapen jarduketak egin ditzan, ezarritako maiztasunarekin eta baliabideekin. Halaber, hartzaileak onartzen ditu hori guztia egiaztatzeko informazio-emaileak berak egindako jarduketak.

5.- Baldin eta informaziorako sarbidea egiten badute Txingudi Mankomunitatearekin lan edo funtzionario harreman zuzenik ez duten pertsonak, derrigorrezkoa izango da pertsona horiek edo horien enplegatzailea tratamendu eragile izendatzea.

6.- Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute elkarri jakinarazteko informazio lagapenean gertatzen diren gorabehera guztiak, emandako edo eman beharreko datuen kontrolari, segurtasunari, konfidentziasunari eta osotasunari dagokienez.

SEIGARRENA.- Datuak isilpean gordetzeko obligazioa.

1.- Informazio-hartzailearen menpeko agintari, funtzionario edo langileak behartuta daude, hitzarmen honen babesean zerga datuen berri duten neurrian, datu horiei buruz isiltasunik handiena gordetzera. Horrenbestez, informazio-hartzaileak agintzen du, bere menpeko agintari, funtzionario edo langile edonork betebeharrak berezi hori urratu duela jakiten badu, dagozkion diziplina neurriak hartuko dituela.

2.- Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilen kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutakoari) dagozkion funtzioen kaltetan gabe, informazio-emaileak datuetan sartzea eten edo mugatu ahal izango dio informazio-hartzaileari, baldin eta datuen erabileran edo kontrolean gorabeherak edo irregulartasunak atzematen dituenean, eta oro har, hitzarmen honetan jasotako printzipio, arau eta bermeak betetzen ez direnean.

realización de actuaciones de comprobación, con la periodicidad y a través de los medios que se fijen, al objeto de verificar la adecuada obtención y utilización de la información cedida y el cumplimiento de las condiciones normativas y convencionales que fueran de aplicación. Igualmente, el cesionario acepta el sometimiento a actuaciones de comprobación que tengan ese mismo objeto, llevadas a cabo por el propio cedente.


5.- En caso de que los accesos a la información se realizaran a través de personas que carezcan de una relación laboral o funcional directa con la Mancomunidad de Txingudi, será preceptiva la designación dichas personas o de su empleadora como encargada de tratamiento.

6.- Ambas partes se comprometen a comunicarse mutuamente todas las incidencias que se produzcan en el suministro de información y que afecten al control, seguridad, confidencialidad e integridad de los datos a suministrar o suministrados.

SEXTA.- Obligación de sigilo

1.- Cuantas autoridades, funcionarios o personal contratado, dependientes del cesionario, tengan conocimiento de datos tributarios al amparo del presente convenio, estarán obligados al más estricto y completo sigilo respecto de los mismos. En este sentido, el cesionario se compromete a adoptar las medidas disciplinarias que correspondan siempre que tenga constancia de la infracción de este particular deber de sigilo por parte de sus autoridades, funcionarios o personal contratado.

2.- Con independencia de las responsabilidades penales, administrativas y civiles en que pudiera incurrirse por el inadecuado uso o acceso a dicha información, o cualquier otra violación de la obligación de sigilo, y sin perjuicio de las funciones que corresponden a la Agencia Española de Protección de Datos o a la Agencia Vasca de Protección de Datos (creada por la Ley 2/2004, de 25 de febrero), el cedente podrá suspender o limitar el acceso a los datos cuando advierta anomalías o irregularidades en su utilización o en el régimen de control, y, en general, cuando se incumplan los principios, reglas y garantías establecidos en el presente convenio.





3.- Zehazki, zerga informazioa lortzeko informazio hartzailearen esku jartzen diren autentikazio mekanismoak (erabiltzaile kodeak eta pasahitzak) baimendu bakoitzarenak eta eskualdaezinak dira. Horrenbestez, erabiltzaile bakoitza bere kodearen eta pasahitzaren erantzulea izango da, hots, horien erabileraren, konfidentzialtasunaren eta zaintzaren erantzule.

ZAZPIGARRENA.- Lagatako datuen izaera

Emandako datuak zergapekoek eta informazioa ematera behartuta dauden gainerakoek aitortu dituztenak dira. Oro har, ez dute inolako egiaztatzerik izan automatizatu aurretik. Dena den, egiaztatutakoak emango dira, jada egiaztatuak izan badira.

Ogasun eta Finantza Departamentuak zehaztu edo argitu ahal izango ditu datuen izaera eta edukia.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa ematearen ondorioak

Hitzarmen honek babesten duen informazio lagapen bakoitzaren ondorioak izango dira, soil-soilik, lagapen hori baimentzeko kontuan hartutako helburu eta xedeetatik, dagokion eranskinean jasotzen direnetatik, eratorritakoak.

Hortaz, ez du inolako eskubiderik edo eskubide espektatibarik sortuko emandako informazioak eraginda gertatzen diren interesdunen alde, eta ez du etengo informazioa lortzeko beharra ekarri duten prozeduretan egon daitezkeen eskubide edo obligazioen preskripzioa. Era berean, ematen den informazioak ez du eraginik izango zerga alorreko egiaztapen edo ikerketa jarduketak egiteak edo emandako datuak aldatzeak ekar dezakeen emaitzan.

BEDERATZIGARRENA.- Informazioa ohiko bideetatik bidaltzea edota herritarrek berak aurkeztea ez galdatzeko konpromisoa.

1.- Bere eginkizunetarako beharrezkoa duen zerga informazioa eskuratu ahal duen neurrian, sinatutako

3.- En concreto, los mecanismos de autenticación (identificadores de usuario y claves de paso) que se pongan a disposición del cesionario con el objeto de poder acceder a la información tributaria, son personales e intransferibles, y los usuarios a quienes se asignen serán los responsables de la utilización que se haga de los mismos, así como de su confidencialidad y custodia.

SÉPTIMA.- Naturaleza de los datos suministrados

Los datos cedidos son los declarados por los contribuyentes y demás personas obligadas a suministrar información, sin que, con carácter general, hayan sido sometidos a actividad alguna de verificación previa a su automatización. No obstante, se facilitarán los comprobados, cuando dichos datos hubieran sido objeto de comprobación.

El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá efectuar especificaciones y aclaraciones sobre la naturaleza y el contenido de los datos suministrados.

OCTAVA.- Efectos del suministro de información

Cada suministro de información que ampare el presente convenio no tendrá otros efectos que los derivados del objeto y la finalidad para los que los datos fueron suministrados, y que vendrán especificados en el correspondiente anexo.

En consecuencia, no originará derechos ni expectativas de derechos a favor de los interesados o afectados por la información suministrada, ni interrumpirá la prescripción de los derechos u obligaciones a que pueden referirse los procedimientos para los que se obtuvo la citada información. Del mismo modo, dicha información no afectará a lo que pudiera resultar de las actuaciones de comprobación o investigación tributaria o de la posterior modificación de los datos suministrados.

NOVENA.- Compromiso de no exigir la remisión de la información por sistemas tradicionales ni su aportación individual al ciudadano.

1.- En la medida en que pueda disponer de la información tributaria que precise para el desarrollo de

hitzarmenean jada jaso diren bide formalizatuak erabiliz, edota baldintza jakin batzuk betez, hala balegokio, Administrazio Publikoei eskainitako beste sistema batzuk erabiliz, nahiz eta bi aldeek artean formalizatu gabeak izan, informazio-hartzaileak ez dio eskatuko Zerga Administrazioari informazio hori ohiko bideetara bidaltzeko.

Hala egiten badu, eskaera ukatu egingo zaio.

2.- Halaber, informazio-hartzaileak ez die eskatuko interesdunei Zerga Administrazioak egin beharreko ziurtagiriak edo antzeko agiriak banan-banan aurkez ditzaten, ezta beren zerga aitortzen originala, kopia edo ziurtagiria, edota informazio-emaileak daukan beste edozein zerga informazio ere; baizik eta konpromisoa hartzen du informazio hori zuzenean emaileari eskatzeko, hitzarmen honen hirugarren klausulan ezarritakoari jarraiki. Horrenbestez, bideratzen dituen administrazio prozeduretan zerga informazioa behar badu, dagozkion neurriak hartuko ditu konpromiso hori betetzeko, horien artean, araudiak galdatzen duenean interesdunaren berariazko baimena alde aurretik lortzea eta ohiko ziurtagiria izan beharrean beste euskarri edo formatuetan ematen zaion informazioari ziurtagiriaren balio eta ondorio berak aitortzea.

HAMARGARRENA.- Jarraipen batzordea

Hitzarmen hau sinatzen dutenak, unean-unean ezarritako ordezkariak sistemaren bitartez, jarraipen batzordean bilduko dira egoki irizitako maiztasun eta inguruabarrak ematen direnean. Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira: hitzarmenaren aplikazioak eragiten dituen arazo ezberdinak aztertzea; informazio lagapen berriak sistematizatu eta automatizatzeko egokiera aztertzea, eta proposatuak eskaera nahiz beharren arabera eta beharrezko baliabideen balorazioa eginda, kasu bakoitzarentzat egokiena den prozedura eta garapen informatikoa adostea.

HAMAIKAGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia

sus funciones a través de los cauces ya formalizados e incorporados al convenio suscrito, o a través de otros sistemas de obtención que, aun no habiéndose formalizado entre las partes, hayan sido ofertados a las Administraciones Públicas para su utilización una vez cumplimentados, en su caso, determinados requisitos, el cesionario se abstendrá de exigir a la administración tributaria la remisión de dicha información por sistemas tradicionales.

En otro caso la solicitud le será denegada.

2.- El cesionario no exigirá a los interesados que aporten individualmente certificaciones o documentos similares que haya de expedir la Administración tributaria, ni que presenten original, copia o certificación de sus declaraciones tributarias, ni cualquier otra información tributaria de la que disponga el cedente, comprometiéndose a formular directamente a éste la correspondiente solicitud en los términos establecidos en la cláusula tercera del presente convenio. A tal efecto, respecto de los procedimientos administrativos que tramite y en los que se requiera información tributaria, el cesionario adoptará las medidas oportunas para dar cumplimiento al compromiso adquirido, entre las que se incluirá recabar el consentimiento previo y expreso del interesado en los casos en que sea exigible por la normativa de aplicación y reconocer la misma validez y eficacia a la información obtenida en soportes o formatos distintos al tradicional certificado.

DÉCIMA.- Comisión de seguimiento

Los firmantes del presente convenio participarán, a través del sistema de representación que en su momento se establezca, en la Comisión de Seguimiento que se constituya, y que se reunirá con la periodicidad y bajo las circunstancias que se estimen oportunas. Dicha Comisión tendrá como finalidad analizar las distintas cuestiones que deriven de la aplicación del convenio y estudiar la sistematización y automatización de nuevos suministros de información, en función de necesidades y solicitudes que se propongan y de la valoración de los recursos necesarios, acordando los procedimientos a seguir y el desarrollo informático más adecuados para cada caso.

UNDÉCIMA.- Entrada en vigor y vigencia



1.- Sinatzen den unean jarriko da indarrean hitzarmen hau eta mugagabeko indarraldia izango du bere babespean egin informazio lagapenei dagokienez, beti ere informazio-hartzaileak lagapen horietako bakoitza ahalbidetzen duten eskuduntzei eta funtzioei bere gain eusten badie, eta salbu bietako edozeinek haren amaieraren gaztigua egiten badu gutxienez hiru hilabete lehenago ondoriorik gabe uzteko proposatzen den eguna baino.

2.- Orain arte informazio-emailearen eta hartzailearen arteko informazio lagapena arautu ahal izan duen beste edozein tresnaren lekua hartzen du hitzarmen honek, eta hark baimendutako lagapenak indarrean daudela eta hitzarmen honek babestu nahiz arautzen dituela ulertuko da, eranskin gisa jasoko direlarik.

Ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN
PARTETIK
POR EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
FINANZAS**

Sin./Fdo.: **Jabier Larrañaga Garmendia**

1.- El presente convenio entrará en vigor en el momento en que se suscriba y tendrá vigencia indefinida en relación a los suministros de información que ampare, siempre que el cesionario mantenga las competencias y funciones que habiliten cada suministro, y salvo denuncia por cualquiera de las partes con un preaviso de tres meses a la fecha en que se proponga dejar sin efecto.

2.- Este convenio sustituirá a cualquier otro instrumento anterior que haya podido regular hasta la fecha el suministro de información entre el cedente y el cesionario, entendiéndose vigentes, y amparados y regulados por el presente convenio todos aquellos suministros autorizados bajo la vigencia de aquel anterior, incorporándose al mismo a través de los anexos correspondientes.

Y en prueba de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, firman las partes el presente documento en duplicado ejemplar en el lugar y fecha del encabezamiento.

**TXINGUDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN
PARTETIK
POR LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE TXINGUDI**

Sin./Fdo.: **Jose Antonio Santano Clavero**

2016 MAY: 17

